ak

# Amezketako Kulturhamabostaldia 2018

azaroaren 5etik 18ra

Amezketako
Udala

AmezketaKulturhamabostaldia2018

# ak Amezketako Kulturhamabostaldia 2018

## AZAROAK 5, ASTELEHENA 19:30ETAN
**KULTUR ETXEKO ARETOAN**

KATIHOTSAK produkzioaren **"Ataun of the dead"** (20 min) eta **"Joxean's hil eben"** (40 min) euskarazko pelikulen emanaldia eta sortzaileekin solasaldia.

Umore absurdoa eta historia lotzen dituen trilogia bateko lehen bi pelikulak. Lehendakaritzara sozialistak heldu zirenean, 2011n Karlistek Zumalakarregi zoombia berpizteari ekin zioten. Hori ikusita, 2014an Partido Nazionalista Vanpirikokoek (PNV) Agirre lehendakariari eskatu beharko diote laguntza.

## AZAROAK 6, ASTEARTEA 19:30ETAN
**KULTUR ETXEKO ARETOAN**

Koldo Izagirre idazlearen **"Bertsoaren harria"** liburuan oinarrituta **Pernando Amezketarrari buruzko hitzaldia** eta **Bixente Gorostidi** eta **Amaia Agirre** bertsolarien bat-bateko bertso saioa.

## AZAROAK 7, ASTEAZKENA 19:30ETAN
**KULTUR ETXEKO ARETOAN**

**"Aralar, mundua leku den lurra"** (45 minutu) dokumentalaren proiekzioa. Bertako ondare natural eta kulturala bere osotasunean ezagutzera emango duen film bat da. Orain arte ikus-entzunezkoen alorrean Aralar mendiaz egin den lanik ikusgarri eta osoena da.

## AZAROAK 8, OSTEGUNA 19:30ETAN
**KULTUR ETXEKO ARETOAN**

Beasaingo Ostadar Dantza Taldeak **"XIX. mendeko jantzi zibilak"** hitzaldia eskainiko du.

Gaur egunean baserritar jantzia deitzen diogu hori, XIX. mendeko jantzi zibila zen. Nola janzten ziren orduan? Nola orraztu? Gaur egungo *baserritar jantzia* armairutik ateratzeko hilabete falta den honetan, argibideak ez dira gaizki etorriko.

## AZAROAK 9, OSTIRALA 21:00TAN

**EUSKARALDIA**ren aldeko **"Kantu afaria"** Zazpitturri Elkartean.

## AZAROAK 10, LARUNBATA

- **16:00tan, ume-jolasak** Larrunarri frontoian. Amezketako Gaztelekuko gazteek eskainita. Txokolatada ere izango da amaieran.
- **18:30etan,** kultur etxean: **Josu Artolari, moto ibiliaren orain arteko txalotzea eta aurrera begira bultzada**, bideo emanaldia.

ONDOREN TRIKI-POTEOA

- **21:00tan,** autobusa Beartzaneko aparkalekuan, **Zalbidera afaltzera** joateko.

Afarirako tiketak TABERNETAN SALGAI Azaroak 4 arte

## AZAROAK 11, IGANDEA SAN MARTIN EGUNA eta JUBILATUEN EGUNA

- **11:30etan meza**, San Martin Ermitan

jarraian bertan, **bertsolari** eta **trikitilariak** giroa berotzeko.

- **14:00tan jubilatuen bazkaria** Beartzana jatetxean, bertsolari eta trikitilariekin

## AZAROAK 12, ASTELEHENA 19:30ETAN
**KULTUR ETXEKO ARETOAN**

Mattin Zeberioren **"8 YUKON"** (45 minutu) dokumentalaren proiekzioa eta solasaldia.

16 eta 64 urte bitarteko zortzi abenturazalek Alaska eta Kanada arteko Yukon-eko urre bilatzaileen ibilbidea zeharkatuko dute oinez eta kanoaz. 17 urteko gazte baten begiradatik nola ikusten ote da Yukon ibaiaren ingurua?

## AZAROAK 13, ASTEARTEA 19:30ETAN
**KULTUR ETXEKO ARETOAN**

Hikiru etxeak ekoitzitako **"Trans-formatzen"** (40 minutu) film dokumentalaren proiekzioa eta solasaldia.

Transexualitatearen inguruko film dokumentala da "Trans-formatzen", etorkizunari, direnetik eta aniztasunetik desafio egin dioten hainbat pertsonen testigantzak barnebiltzen dituena. Horrez gain, Chrysallis adin txikiko transexualen elkarteko kide baten testigantza ere jasoko dugu aurrez aurre.

## AZAROAK 14, ASTEAZKENA 19:30ETAN
**KULTUR ETXEKO ARETOAN**

Tolosako Tik Tak antzerki taldearen eskutik **"Evaren alabak"** antzerki emanaldia (12 urtetik gorakoentzat gomendagarria)

30 minutu pasatxoko antzerkia Amezketako hiru gunetan kokatuko dute. Errealitatea bezain antzezlan gordina gorpuzten dute hiru emakumek eta gizonezko batek. Hiru emakumeek hildako hiru emakume gorpuzten dituzte eta horietako baten senarrak emango dizue ongietorria.

## AZAROAK 15, OSTEGUNA

- **19:00tan,** Plazan, **EUSKARALDIAko txapa jasotzea**.
- **19:30etan,** Kultur Etxeko aretoan, **Andoni Egañak "Euskara: ondo al goaz?"** hitzaldia eskainiko du.

## AZAROAK 16, OSTIRALA

- **19:30etan** Kultur Etxeko aretoan, **Iñaki Etxezarraga "Etxe"** eta **Iban Gurrutxaga**ren kontzertu akustikoa.
- **20:30etan talo jatea,** Larrunarri frontoian, DBH 4-ko ikasleek antolatuta, Amezketako Gaztelekuko gazteen laguntzarekin.

## AZAROAK 17, LARUNBATA IV.ERGONEKO FESTA

- **17:00tan** Frontoi zaharrean **VI. hiruterdiz-aurre pelota torneoko finala** (eguraldi txarra bada goiko frontoian).

ONDOREN, POTEOA.

- **20:30etan, txoooootx!** Altuna Anaiak frontoian. jatekoa, nork berea eraman beharko du. parrila piztuko da.

Segidan, **oharkabe** taldearekin, **erromeria**!

## AZAROAK 18, IGANDEA, PERI EUNE!!
10:00ETATIK AURRERA.